


BEZEROEKIN ERLAZIOA

Bezeroak desberdintzeko, bakoitzari zerbitzu pertsonalizatu bat eskaintzen diogu. Gure enpresarekin batera, eskaini nahi duguna enpatia eta laguntasuna sentitzea da, gure bezeroekin gehiago konektatzeko eta gertutasuna izateko.

Hasteko, gure produktua jendeari iristeko sare sozialetan promozionatuko dugu. Jendea gure produktuaz ohartzeko gaur egungo plataforma ezagunetan igoko dugu gure edukia. Gainera, gertutasun gehiago transmititzeko gaur egungo “*influencer*” famatu batzuekin kolaboratuko dugu, haiek adin desberdinekoak izango dira publiko guztiei iristeko.

Gure web orrialdetik erosteko aukera izango dute. Gure web orrialdea erakargarria izango da, kolore argiekin eta argazkiz beteta egongo da. Eskaera bat egiteko web orrialdetik, gure bezeroek hurrengo datuak jarri beharko dituzte: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, emaila eta bankuko txartel zenbakia. Aukera izango dute webgunean datuak ez gordetzeko, beraien datuen segurtasuna bermatzeko. Gure produktua erosi ondoren, email-era bidaliko zaie mezu bat, bere produktua nondik doan ikusteko momentu guztietan eta email-ean ere eskerrak emango dizkiegu gure produktua erosteagatik.



Pertsonak gure produktua denda fisikoetan erosi nahi badute, hainbat leku desberdinetan aurkituko dituzte. Farmazietan, Kirol denda txikietan eta herriko denda batzuetan. Bertan gure harremana zeharkakoa izango da, horregatik beste modu batera jokatu beharko dugu. Denda fisikoak produktuaren informazio osoa edukiko dute, erosleen edozein galdera erantzuteko. Astean behin taldeko pertsona bat dendetara hurbilduko da egoera ebaluatzeko eta salmentak nola doazen jakiteko.



Gurekin kontaktatzeko, hainbat modu desberdin daude. Telefonoz edo e-mailez ahal izango dute gurekin kontaktuan jarri, etxetik ez mugitzeko. Astelehenetik ostiralera zalantzak eta deiak erantzungo ditugu, tratua atsegina izango da eta bezeroen arazoak konpontzeko interesa jarriko dugu.



BIBLIOGRAFIA: Argazki hau ChatGPT sortutakoa da. Horretarako, hau eskatu genion: "HAZME UNA MUJER MIRANDO A UN ORDENADOR EN QUE HAY UN CANDADO" "HAZME UNA MUJER MIRANDO A UN ORDENADOR EN EL QUE HAY UNA RIÑONERA NEGRA" "HAZME DOS PERSONAS HABLANDO CON UNA RIÑONERA"